

## 2020-2021-2022-EGONKORTZEKO EPE-KO LANPOSTUAK JABETZAN HARTZEA: OHIKO GALDERAK

1. Noiz hasten da lanpostuaz jabetzeko prozesua EPE bakoitzean?
2. Nola har dezaket zita lanpostuaz jabetzeko?
3. Lanpostu bat baino gehiago esleituta duten pertsonen egoera
4. Non hartzen da jabetzan lanpostua?
5. Zer dokumentazio eraman behar dut lanpostuaz jabetzeko?
6. Lanpostuan sartzea
7. Zalantzarik izanez gero, nora jo dezaket?

---

### 1. Noiz hasten da lanpostuaz jabetzeko prozesua EPE bakoitzean?

Lanpostuaz jabetzeko epea hilabetekoa izango da, destinoak esleitzeko ebazpena EHAAAn argitaratzen denetik hasita.

EHAAAn argitaratu aurretik, informazio hori 2020-2021-2022-Egonkortzeko EPEaren atalean argitaratuko da.

Kategoria bakoitzean, bi hautaketa-prozesuetako (Egonkortzeko EPEa eta 2020-2021-2022ko EPEa) destino-esleipenen ebazpenak egun berean argitaratuko dira EHAAAn. Lanpostuaz jabetzeko epeak bat etorriko dira denboran, jarraian aipatutako bost kategoriatan izan ezik; horietan, Egonkortzeko EPEko eta 2020-2021-2022ko EPEko destino-esleipenen argitalpenak ondoz ondoko uneetan egingo dira, aldi berean: Erizaina, Erizaintzako laguntzailea, Administrari laguntzailea, Zeladorea eta Zerbitzuetako langilea.

Destinoen esleipenak pixkanaka argitaratuko dira, 2025eko apiriletik ekainera bitartean (ahal dela).

Aldi baterako ezintasuneko egoeran egonez gero, lanpostuaz jabetzeko prozesua luzatzea eskatu ahal izango da. Horretarako, interesdunak eskaera bat egin beharko du, eta Osakidetzak dagokion ebazpena emango du, eskaera onartzeko edo ukatzeko.

### 2. Nola har dezaket zita lanpostuaz jabetzeko?

Lanpostuaz jabetu aurretik, destinoko esleipendunek zita hartuko dute Osakidetzako egoitzetara joateko eta lanpostuaz jabetzeko.

Horretarako, Osakidetzak zitak hartzeko gune digital bat gaituko du 2020-2021-2022-Egonkortzeko EPEren webgunean. Web bidezko zita hartzeko aukera destinoko esleipenak EHAAAn argitaratu baino nahikoa denbora lehenago irekiko da. Argitaratze horrek emango dio hasiera lanpostuaz jabetzeko epeari.

Lanbide-kategoria bakoitzak lanpostuaz jabetzeko zitak hartzeko epe propioa izango du, bai eta lanpostuaz jabetzeko epe propioa ere. Horren berri emango da 2020-2021-2022-Egonkortzeko EPEaren webgunean.

Lanpostuaz jabetzeko zitak hartzeko epea irekita dagoen bitartean, esleipendunek zita baliogabetu edo aldatu ahal izango dute.

### 3. Lanpostu bat baino gehiago esleituta duten pertsonen egoera

Pertsonen lanpostu bakarria esleitzen bazaie, zita bakarria hartu ahal izango dute.

Pertsonen kategoria bereko bi lanpostu esleitzen bazaizkie (bat Egonkortzeko EPEn eta bestea 2020-2021-2022ko EPEn), horietako bakarria hartu ahal izango dute jabetzan. Ondorioz, lehenetsitako aukera adierazi beharko dute zita hartzean.

Pertsonen lanbide-kategoria desberdinetako bi lanpostu edo gehiago esleitzen bazaizkie, esleitutako lanpostua adina zita hartu ahal izango dituzte, eta lanpostu horiez jabetu ahal izango dira, nahiz eta horietako batean bakarrik sartu ahalko diren (beste lanpostu guztiak eszedentzia-egoeran geratuko dira).

#### 3.1 Kategoria bereko bi plaza lortzeko aukera duten pertsonen kasuan, zer gertatzen da esleitzen ez den lanpostuekin?

Lanpostuaz jabetu ez diren esleitutako destinoak libre geratzen dira, eta erresulta-fasean esleituko dira berriro, zerrendaren ordenari jarraituz. Esleipen berri hori lanpostuaz jabetu ondoren egingo da.

### 4. Non hartzen da jabetzan lanpostua?

Destinoko esleipendunaren zerbitzu-erakundearen egoitzan jabetuko dira lanpostuaz langileak, zehazki Langileen Zuzendaritzaren bulego publikoetan. Zitaren erreserba baieztatzen den unean, egiaztagiria emango da, eta bertan jasoko da lanpostuaz jabetzeko lekuari buruzko informazio zehatza: zerbitzu-erakundea, udalerria eta egoitzaren helbidea.

### 5. Zer dokumentazio eraman behar dut lanpostuaz jabetzeko?

. Pertsonak eraman behar dituen dokumentuak:

1- Indarrean dagoen NANA (halakorik ezean, indarrean dagoen gidabaimena edo pasaporte).

2-Azterketa medikoa egin ondorengo gaitasun-ziurtagiria.

3- OTI edo gizarte-segurantzaren txartela

4.-Oinarri espezifikotan jasota dagoen kasuetan, elkargoko kide ziurtagiria

. Lanpostuaz jabetzeko unean pertsonen emango zaizkien dokumentuak, bete ditzaten:

5- Zinpeko adierazpena eta Osakidetzaren informazioarekiko konfidentzialtasun-konpromisoa.

6- Erantzukizunpeko adierazpena, haurrak eta nerabeak osorik babesteko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoaren 57.1 artikulua betetzeari buruzkoa, eta Sexu-delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiria lortzeko baimena.

### 6. Lanpostuan sartzea

Lanpostuaz jabetu eta hurrengo egunean, langileek beren lanpostura itzuli beharko dute.

Lanpostuaz jabetzeko unean gerta daiteke interesduna ez itzultzea esleitutako lanpostura; hala bada, horren berri eman beharko dio zerbitzu-erakundeari, betiere araudian aurreikusitako kasuen barruan, hala nola eszedentzia-egoera, zerbitzu berezien egoera, zerbitzu-eginkizuna edota izendapen askea. Lanpostuaz jabetu eta berehala zerbitzu-eginkizuna eskatu nahi bada, behar besteko aurrerapenaz jakinarazi beharko zaio jatorrizko eta helmugako zerbitzu-erakundeari.

**7. Zer egin behar dut lanpostuaz jabetu eta berehala zerbitzu-eginkizuna eskatu nahi badut?**

Behar besteko aurrerapenaz jakinarazi beharko zaio jatorrizko eta helmugako zerbitzu-erakundeari.

**Zalantzarik izanez gero, nora jo dezaket?**

<b>ERAKUNDEA / ORGANIZACIÓN DE SERVICIOS</b>	<b>HELBIDEA</b>	<b>DIRECCIÓN</b>	<b>TEL ZENBAKIA / Nº TELÉFONO</b>
<b>Zuzendaritza Nagusia / Dirección General</b>	Araba Kalea 45,01006 Gasteiz. EPE- Informazio gunea	C/ Álava, 45 - 01006 Vitoria-Gasteiz. OPE -Punto de Atención	945 00 64 62 / 945 00 61 50
<b>Arabako ESI / OSI Araba</b>	Jose Atxotegi kalea z.g., 01009 Gasteiz	C/ Jose Atxotegi, s/n - 01009 Vitoria-Gasteiz	945 00 70 39
<b>Arabako Errioxako ESI / OSI Rioja Alavesa</b>	LEZAKO OSPITALEA Logroño-Gasteiz errepidea 59. km, 01309 Guardia	HOSPITAL DE LEZA Carretera Vitoria-Logroño km.59 - 01309 Laguardia.	945 00 68 72
<b>AOMS / RSMA</b>	Araba kalea 43, 01006 Gasteiz (0 soilairua - Zuzendaritzako Idazkaritza)	C/Alava,43 - 01006 Vitoria-Gasteiz (Planta 0 - Secretaría de Dirección)	945 00 65 38
<b>Gorlizko Ospitalea / H. Gorliz</b>	Urezarantza ibiltokia 1, 48630 Gorliz. 3. Solairua. Administrazioa	Urezarantza ibiltokia 1 - 48630 Gorliz. 3ª Planta. Administración	944 00 66 57
<b>Santa Marina Ospitalea / H. Santa Marina</b>	Santa Marina Errepidea 41, 48004 Bilbo (3ª solairua- Zumarraga Aretoa )	Santa Marina Errepidea, 41 - 48004 Bilbao (Planta 3- Sala Zumarraga)	944 00 69 73
<b>Barakaldo-Sestaoko ESI / OSI Barakaldo-Sestao</b>	Miranda etorbidea 5, 48902 Barakaldo	Avda. Antonio Miranda, 5 - 48902 Barakaldo	944 00 67 21
<b>Barrualde-Galdakaoko ESI / OSI Barrualde-Galdakao</b>	Labeaga auzoa 46, 48960 Usansolo - Beheko soilairua. Pertsonaleko Saila	Barrio Labeaga, 46 - 48960 Usansolo - Planta Baja. Departamento de Personal	944 00 70 58
<b>OSI Bilbao-Basurto</b>	Montevideo etorbidea 18, 48013 Bilbo. Jaularitzaren pabiloia. Beheko solairua.	Avenida de Montevideo, 18 - 48013 Bilbao. Pabellón de Gobierno. Planta baja.	94 400 63 22
<b>BOMS / RSMB</b>	Maria Diaz Harokoa kalea 58, 48010 Bilbo	María Díaz de Haro, 58 - 48010 Bilbao	94 470 52 56
<b>Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESI / OSI Ezkerraldea-Enkarterri-Cruces</b>	Gurutzeta plaza 12, 48903 Barakaldo	Plaza de Cruces, 12 - 48903 Barakaldo	946 00 62 08

<b>Uribeko ESI / OSI Uribe</b>	Goietza kalea 32, Beheko solairua - 48610 Urduliz	Calle Goietza 32, Planta baja - 48610 Urduliz	94 600 70 10
<b>Donostialdeko ESI / OSI Donostialdea</b>	Doctor Begiristain kalea z./g. 20014 Donostia (Erregistro zentrala, Gipuzkoa eraikinaren ondoan)	C/ Doctor Begiristain, s/n - 20014 Donostia-San Sebastián (Registro central, ubicado anexo al edificio Gipuzkoa)	943 007508 / 943 007318
<b>Tolosaldeko ESI / OSI Tolosaldea</b>	San Esteban auzoa z.g., 20400 Tolosa	Bº San Esteban, s/n 1ra planta - 20400 Tolosa	943 00 68 10
<b>Debagoieneko ESI / OSI Debagoiena</b>	Nafarroa Etorbidea nº 31, 1. FAGOR Eraikina, 20500 Arrasate	Avenida de Navarra nº 31, 1º Edificio FAGOR, 20500 Arrasate	943 03 52 73
<b>Debabarreneko ESI / OSI Debabarrena</b>	Mendarozabal auzoa z.g., 20850 Mendaro	Mendarozabal, s/n - 20850 Mendaro	943 03 28 06
<b>Bidasoko ESI / OSI Bidasoa</b>	Zubieta finka, Mendelu auzoa z.g., 20280 Hondarribia	Finca Zubieta, Barrio Mendelu, s/n - 20280 Hondarribia	943 00 4856 943 00 4858
<b>Goierri-Urola Garaiko ESI / OSI Goierri-Alto Urola</b>	Argixao auzoa z.g., 20700 Zumarraga (Erlo Gela - sarrera nagusia)	Barrio Argixao, s/n - 20700 Zumárraga (Sala Erlo - Entrada principal)	943 03 50 27
<b>GOMS / RSMG</b>	Guipuzkoa Eraikina 2B Solairua. Doctor Beguiristain pasealekua 115, 20014 Donostia	Edificio Gipuzkoa Planta 2B Paseo Doctor Beguiristain, 115- 20014 Donostia-San Sebastián	943 00 60 66
<b>TGEEZ / CVTTH</b>	Labeagako auzoa 46 A., 48960 Galdakao-Usansolo	Barrio Labeaga 46 A - 48960 Galdakao-Usansolo	94 4007169
<b>Emergentziak / Emergencias</b>	Maria Diaz de Harokoa kalea 53, 48010 Bilbo	C/ Mª Díaz de Haro, 53 - 48010-Bilbao	94 400 74 78